

06/3 IRIZPENA

Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen jarduera jakin batzuez zelan baliatu arautzen duen Dekretu Proiektuaren gainean

Bilbon, 2006ko ekainaren 6an

I.- AURREKARIAK

2006ko apirilaren 25ean Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza saileko idazkia aurkeztu zen Euskal Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan, eta idazki horretan Borondatezko Gizarte-Aurreikuspeneko Erakundeen jarduera jakin batzuez zelan baliatu arautzen duen Dekretu Proiektuaren gainean txostena egiteko eskatzen da, Euskal Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1.d) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomi Estatutuak, 10.23 artikuluan, eskumen eskusiboa ematen dio Autonomi Erkidegoari Gizarte Segurantzaren sartuta ez dauden Mutualitateen gaitan. Eskumen horren haritik, Eusko Legebiltzarrak Borondatezko Gizarte-Aurreikuspeneko Erakundeen gaineko 25/1983 Legea, urriaren 27koa, onetsi zuen (163. EHAA, azaroaren 7koa), lege esparru berria ezarri, Mutualitate kontzeptuan oinarritzen zen aurrekoaren ordeztu, zeinen bidez azkeneko helburutzat kidetuak autonomi erkidegoaren esparruan bizitza, baliabideak zein jarduera arriskuan jar liezaieketen gertakizunez babestea duten mota desberdinetako irabazi asmorik gabeko erakunde ugarien lege esparrua zabaldu nahi baitzen.

Ekainaren 3ko 2003/41 Zuzentaraua, enplegu pentsioen funtsen jarduerari eta ikuskapenari buruzkoa, enpleguzkoak, sektorialak deritzen zein enpresek bultzatutakoak diren eta beren kontura ari diren langileen partaidetza ere ahalbidetzen duten pentsio funtsak eratzen dituzten erakundeen kudeaketa eraginkorra eta finantzazko kaudimena sustatzen da.

Testuinguru honetan, 2006ko urtarrilaren hamarrean Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak Euskadiko Gizarte Aurreikuspen Osagarriko Plana onetsi zuen, epe luzerako gogoeta estrategiko modura, gizarte erronka berrietarako egokia den Gizarte Aurreikuspen Osagarriko ereduak ezarri, eta oraingo esparrua Europako Batasunetik datozen Zuzentarueta moldatzera begira. Plan honetan batez ere eta funtsean enplegu sistemak sendotzera bideratzen diren hainbat jarduerak ezartzen dira, oraindik sartuta ez dauden eta etorkizunean premia handiagoa izan lezaketen sektoreak horretara erantsiz, lege esparru egokia eta nahikoa pizgarri sortzera xedatutako neurri desberdinen bitartez. Alde horretatik, gerora Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Legeak gizarte aurreikuspen osagarria orokortzea bultzatuko duen arauketa esparrua definitzeko buruzko Planaren postulatuak gauzatuko zituela aurreikusten zen, erakunde horiei aplikagarria zaien zerga araubidea eta enplegu sistema horiek ezartzea sustatzeko beste neurri batzuk aldatu behar zirela esaten zen.

Jaso eta berehala agiriaren kopia bidali zitzaizen Kontseiluaren Osoko Bilkurako kide guztiei, proposamenak eta iritzia igorri eta horiek Lan Batzorde egokiari helarazteko helburuarekin, Euskal Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren Jardunbideari buruzko Arautegian ezarritakoari adituz.

2006ko maiatzaren 12an Garapen Ekonomikoaren Batzordea bildu zen, Irizpenaren Aurreproiektuari buruzko lehenengo proposamena eztabaidatzeko. Maiatzaren 19an, Irizpen Proiektu hau 2006ko ekaineko 6ko Osoko Bilkurara bidaltzea erabaki zen eta horrela onartu zen Bilkura hartan.

II.- EDUKIA

Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen jarduera jakin batzuk araupetzen dituen Dekretu Proiektuaren testuak 13 artikulua, bost Xedapen Gehigarri, Xedapen Iragankor bat eta Amaierako bi Xedapen dauzka.

Atarikoak

Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen gaineko urriaren 27ko 25/1983 Legea aipatzen da hemen. Lege horren bidez Erakunde horiek gobernu jardueretan beren kideen kudeaketa eta partaidetza demokratikoan gardentasun irizpideen bidez aritzea lortu nahi zen. 2003/41 CE zuzentaraua, ekainaren 3koa ere aipatzen da, enplegu pentsioen funtsen eta jardueren gainekoa, enpleguzkoak, sektorialak zein enpresek sustatutakoak diren pentsio funtsak eratzen dituzten erakundeen kudeaketa eraginkorra eta finantzazko kaudimena bultzatu nahi baititu.

Zuzentzarauan definitutako estandarrak Erakundeen kaudimena eta kidetutako pertsonen eskubideak bermatzeko orduan funtsezkoak direnez, Dekretu honek enpresen baitan sortzen den gizarte aurreikuspena arautu ez eze, aplikazioa erretiro, ezgaitasun, heriotza, langabezia eta gaixotasun prestazio horiek emango dituzten Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakunde guztietara hedatzen du.

Horregatik, Dekretu honek urriaren 27ko 25/1983 Legearen edukia garatu nahi duten gaiak arautzen ditu, kidetutako pertsonen Erakundeari buruzko informazioa jasotzeko duten eskubideari, Gobernu Organoen, Batzar Nagusiaren eta Gobernu Batzarraren eskumenei eta Gobernu Batzarraren eraketari dagozkion alderdietan, baita Erakundeen jardueraren eta ekonomia eta finantzazko egoeraren jarraipenaren gaineko administraziozko kontrolerako gaitasunei buruzkoetan ere. Balizko kidetuen informazioa eta babeste hobetzeko neurriak arautzen dira, Borondatezko Gizarte Erakunde jakin batzuen publikitatezko jarduerari buruz, eta gizarte aurreikuspeneko modalitate desberdinak definitzen dira, baita emandako prestazioen definizioa zer aurreikuspen planetako bitartekotan gauzatzen den ere.

Xedapenen atala

1. artikulua dio Dekretuaren aplikazio esparrua erretiro, heriotza, ezgaitasun, langabezia edota gaixotasunerako aurreikuspen planak batzen dituzten BGAEak lirakeela, babeslearekin lan lotura duten kideentzat, edo kooperatiba eta lan baltzuen esparruan lan bazkide direnentzat, edo Gizarte Segurantzako edozein Araubidetan edo sistema publikoaren alternatiba diren mutualitateetan kotizatzen ari direla, elkarren artean lan edo elkartzeko lotura dutenentzat. Bazkide babesle nagusia estaldura jarduera horiek garatzen dituen finantzazko erakunde bat den beste edozein BGAEri ere aplikatuko zaio. Gainera, aurreikuspen planak zer diren ere definitzen da.

2. artikulua BGAEetako Gobernu Organoen prestakuntza eta formazioa zehazten ditu, zuzendaritza efizientea, esperientzia eta prestakuntza egokikoa izan beharko dutela adieraziz; horregatik Gobernu Batzarreko zein Zuzendaritzako kide guztiek gizarte aurreikuspenaren gaian gutxienez jakinduria dutela frogatu beharko dute, gizarte aurreikuspenean titulazio edota prestakuntza nahikoa eta sektorean gutxienez hiru urteko eskarmentua erakutsiz.

3. artikulua dio Gobernu Batzarrak urtero Batzar Nagusiari urteko kontuak eta ekitaldiko kudeaketa txostena aurkeztuko dizkio, txostenaren gutxienezko edukia ere zehaztuz, eta **4. artikuluan** Dekretu honek ukitzen dien BGAEk, oro har, kideuari eta onuradunari zer informazio jarriko dieten eskueran aipatzen da. Eman beharreko informazioan, besteak beste, esaten da Erakundeak gutxienez urtean behin urte natural bakoitzean zuzenean zein egotzita egindako ekarpenen, eskubide ekonomikoaren urte amaierako balioaren eta, izatekotan, urtean ordaindutako prestazioen ziurtagiria eta kudeaketa txosten laburtua bidaliko dituela. Enplegu eta bazkideutako modalitateko BGAEen kasuan kideei etorkizuneko pentsioari buruzko estimazioa eskainiko zaie.

5. artikulua dio Gobernu Batzarrak Erakundearen inbertsio politika onetsiko duela, gutxienez hiru urtean behin berrikusiko den Inbertsio Printzipioen idatzizko Adierazpen baten bidez, Adierazpenaren gutxienezko edukia ere

zehazten du. Gainera, Ogasun eta Herri Administrazio Sailari ahalmena ematen zaio kudeaketa kontrolako eta arriskuen kontrolako sistemek gutxienez bete behar dituzten baldintzak ezartzeko.

6. artikulua Dekretu honek ukitutako Erakundeek Administrazioari aurkeztu behar dioten gutxieneko informazioa zein den zehazten du.

7. artikulua Erakunde hauek administrazio eta kontabilitate kontuetako antolakuntza kontrolatzeko barruko zer prozedura izango duten zehazten du.

8. artikulua jasotzen da arrisku biometrikoak beren gain hartu edota inbertsioaren emaitza zein prestazio maila jakin bat bermatzen duten BGAEk, aurreikuspen plan bakoitzerako, beren gain hartutako betebeharrei buruz nahikoa zuzkidura tekniko eratu beharko dutela; betebeharrak urtero kalkulatu dira prospekzio metodo aktuarial zuhurren bidez eta, oro har, zuzkidura teknikoak kalkulatzeko %4ko interes tasa teknikoa erabiliz. Zuzkidura tekniko horiek finantzaketa **9. artikulua** zehazten da, non, gainera, ekitaldi zehatz batean funtsak behar diren zuzkidura teknikoaren %90etik behera direnean, edo hiru urtez jarraian behar diren zuzkidura teknikoak asetzeko besteko funtsik eraturata ez dagoenean, berronkatzeko plana egin beharko dela finkatzen baita.

10. artikulua dio arrisku biometrikoak beren gain hartu edota inbertsioaren emaitza zein prestazio maila jakin bat bermatzen duten BGAEk beren zuzkidura teknikoek gorako aktibo gehigarriak izan behar dituztela beti, erreserba modura, kaudimen margen izan daitezten. Kaudimen margen horren zenbatekoa zuzkidura teknikoaren gutxienez %4 izango da.

11. artikulua dekretu honek ukitzen dien BGAEen inbertsioetarako arauak zehazten ditu. Besteak beste, azpimarratzen da aktiboak nagusiki araututako merkatuetan inbertituko direla, non araututako finantzazko merkatu batean negoziatzen ez diren aktiboetako inbertsioa ez baita diru zorro osoaren 100eko 30etik gora izango, eta baldintza jakin batzuk beteko baitira; eskumena ematen zaio Ogasun eta Herri Administrazio Sailari aurreikuspen planen mendeko aktiboetako inbertsioen araubidea eta baldintzak ezartzeko.

12. artikulua jasotzen da BGAEk aurreikuspen planetako ondarea gauzatzen deneko finantzazko aktiboaren kudeaketa kontratatu ahalko dutela, kreditu erakundeekin, inbertsio kolektiboaren erakundearen sozietate kudeatzaileekin, inbertsio enpresekin zein bizitzaren alorrean aritzen diren aseguru erakundeekin, kontratazioa hainbat irizpidetara doitu delarik.

13. artikulua BGAEen publizitate jardura arautzen da; ematen den informazioa egiazkoa, eraginkorra, nahikoa eta gardena izango da, edukiari eta publizitatezko mezuari buruzko zalantza bakoia. Bestak beste, aipatzen da publizitatean iraganeko errentagarritasunari buruzko aipuak sartzen direnean, baldintza batzuk beteko direla, eta publizitate oro, hedatu aurretik, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren baimena beharko duela.

Lehenengo Xedapen Gehigarritik Laugarrenera bitartean, hainbat aldarazpen egiten zaizkio Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen gaineko Legearen arautegia onesten duen otsailaren 20ko 87/1984 Dekretuari, zehazki, 16. artikulua (administrazio gastuak), 31. artikulua (bazkideetako pertsona arrunten eskubide ekonomikoak beste aurreikuspen plan batera mugitzea, eta metatutako erreserbak itzultzea) eta 12. artikulua (erabilitako interes tasa).

Bosgarren Xedapen Gehigarrian interes tasa teknikoa zehazten da (ez da inoiz aurreikusitako inflazio hipotesia portzentajezko hiru puntu baino gehiago gaitutuko, eta muga gorena %5 izango da) arrisku biometrikoak beren gain hartu edota inbertsioaren emaitza edo prestazio maila jakin bat bermatzen duten kooperatiba sozietateen esparruan lan bazkideak dituen BGAEetarako.

Xedapen Iragankorrak jada Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Erregistroan izena emanda dauden BGAEk beren estatutuak Dekretu honetara egokitzeko zelako epea izango duten argitzen du.

Amaierako Lehenengo Xedapenak eskumena ematen die Ogasun eta Herri Administrazioari, eta Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailburuari Dekretu hau garatu eta beteazteko, eta **Amaierako Bigarren Xedapenak** Dekretua indarrean noiz jarriko den zehazten du.

III.- OHARRAK

Dekretu Proiektu honek arauketa berria justifikatzeko, atarikoan dioenez, zaharkitutako 25/1983 Legea enplegu pentsioen funtsetako jardueri eta ikuskapenari buruzko ekainaren 3ko 2003/41 CE Zuzendaritza definitutako estandar berrietara egokitu behar dela dio, Erakunde horien kaudimena bermatu nahirik. Kaudimena bermatze hori da, Sailaren iritziz, Dekretu honetan *enpresen baitan sortzen den gizarte aurreikuspena arautu ez eze, erretiro, ezgaitasun, heriotza, langabezia eta gaixotasun prestazioak ematen dituzten Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakunde guztiei ere aplikatzeko* arrazoiak. Horregatik, aplikazio esparruan banako eta kideetako BGAEak ere sartzen ditu, eta horiei dagokienez Dekretuan xeheki ageri diren betebeharrak ezartzen ditu.

Alabaina, BGAE horien barruan desberdin tratatzen ditu, administrazio gastu, eskubide ekonomikoen mugitze edota interes tasa teknikoaren kontuak, xedapen iragankorretan bereziki zerrendatuta datozenak, irizpide batzuei adituz (ekarpen edo prestazioa definituta dauden, zelakoa den bazkide babeslea –kooperatiba ala enpresa-, planen modalitateak). Horrela, kontua da 25/1983 Legeak eta 87/1984 Arautegiak letran eta izpirituan sektore homogeneoa ikusten duten tokian, Dekretu honek araubide desberdinak diseinatzen dituela, oraingo Legeak eta Arautegiak ezagutzen ez dituzten irizpideei adituz, baina arauketa berria motibatzen duten arrazoiak justifikatu barik. Zeren, Zioen Azalpenean batez ere ekainaren 3ko 2003/41 CE Zuzendaritzaaren ustezko transposizioaren inguruan ari den arauaren justifikazioa aurkezten den bitartean, Dekretuaren esparrua, izatez, Zuzendaritza horren arabera eskagarria litekeena baino askoz ere urrutirago baitoa eta, ondorioz, ez baitira benetan azaldu Dekretu honetan planteatzen den eta hain garrantzitsua den arauketa berriaren zatirik handiena justifikatzen duten argudioak.

Gainera, Dekretuak ziurtatzen ditu oraingo legedian definituta ez dauden alderdiak, adibidez, Aurreikuspen Plana formalizatzen duten Prestazioen Arautegia (1.c artikuluan definitu eta 4.a artikuluan eskatutakoak), orain arte derrigorrezkoa ez zena, edo orain arte ez zegoen ez ziren plan, erregistro liburu eta abarrik izatea, edo orain arte eskatzen ez zenik eskatzea, Dekretuaren Gobernu Organoen prestakuntza eta formazioari buruzko 2. artikuluan egiten duten bezala. Dekretuaren artikulua horretan *"Gobernu Batzarreko zein Zuzendaritzako kide guztiek gizarte aurreikuspenetan gutxieneko jakinduria frogatu beharko dutela"* dio eta 25/1983 Legeak, berriz, 13.b) artikuluan, *"Bazkideen Eskubideez"* ari denean, bazkideek *"Erakundearen Organoetako karguetarako nor jarri hautatzeko, edo beraiek hauta ditzaten eskubidea izango dute"* dio, bazkide izateaz bestelako baldintzarik aipatu barik, ez gizarte aurreikuspenaren alorrean frogatutako eskarmenturik ez eta prestakuntzarik izan behar denik (zeren, bestela, praktikan, BGAEetako Gobernu Batzarretako partaidetza mugatuko baillizateke); kontraesanean daude, beraz.

Arestian esandakoaren kalterik gabe, deigarria da, halaber, Dekretu Proiektu honen edukian zehaztasun gutxiago definitu egiten direla, eta Administrazioak gai askotan erabakitzeke eskumen handia hartzen duela

¹ Izan ere, 2.2. artikuluan a) atalean *"Nahikoa titulazio edota prestakuntza frogagiri"* esan beharrean, *"Nahikoa titulazio edo prestakuntza frogagiri"* esan beharko luke, zeren banaka balioesten diren baldintzak baitira. Bestalde, nahikoa titulazio esatean "lizentziatura, diplomatura edo antzekoak frogatzea" adierazi nahi da, hau da, halako titulazioak edozein alorrean eta ez gizarte aurreikuspenaren alorrean halabeharrez, eta horrez ez dauka zentzurik.

beretzat, eta horrek zalantza eta segurtasun juridikorik eza gehitzen dizkiotela, BGAEen ohiko kudeaketan laguntzen ez dutenak; kontu horiek guztiak modu desberdinetan artikulatuta daude.

Lehenik eta behin, inolako beharrik gabe, hizkuntza anbigua, zehaztasunik gabea eta nahasia erabiliz.

Bigarren, jarduera zehatz bat gidatuko duten irizpide objektiboak finkatu barik, edo behar bezain argi edo zehatz finkatu barik; horrela, azkenean, Administrazioaren eskumenaren mende garatzen dira.

Hirugarren, BGAE batzuentzat araubide pribilegiatua ezarriz, zuzenean, justifikaziorik gabe.

Laugarren, zalantzazko mugak eta debekuak jarriz, sektorean dagoen errealitatea eta izango duten eragin okerra kontuan hartu barik.

Horregatik guztiarengatik, Eusko Jauriaritzak 2006ko urtarrilean onetsi zuen Euskadiko Gizarte Aurreikuspen Osagarriko Planean zioen bezala, gizarte aurreikuspeneko sistema osagarrien oraingo errealitatea araudizko moldaketa eta modernizazioa eskatzen ari da eta, egitekotan, Lege berri baten esparrutik garatu beharko lirateke.

IV.- ONDORIOAK

Euskadiko EGABk irizpenaren mamian egindako oharrik berresten ditu, eta desegoki irizten dio Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeek jarduera jakin batzuen baliapena araupetzen duen Dekretu Proiektuaren tramitazioari, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeek gainean dagoen arauketa sektoreko oraingo errealitatera moldatzeko egokiena ez delako, eta dekretua onetsiko balitz, kontraesanak, anbiguotasunak, segurtasunik juridikorik eza eta legezko babesgabetasuna soilik ekarriko lituzkeelako.

Bilbon, 2006ko ekainak 6

O.I. Lehendakaria
Antxon Lafont

Idazkari Nagusia
Javier Muñecas